

**BILBOKO ELIZBARRUTIKO
CARITASEN ALDE GETXOKO
UDALEKO AURREKONTUAN
AURREIKUSITAKO DIRU-LAGUNTZA
IZENDUNA ARAUTZEKO HITZARMENA**

**CONVENIO REGULADOR DE
SUBVENCIÓN PREVISTA
NOMINATIVAMENTE EN EL
PRESUPUESTO DEL AYUNTAMIENTO
DE GETXO A FAVOR DE CARITAS
DIOCESANA DE BILBAO**

Getxon, 2023ko uztailaren 20an

En Getxo, a 20 de julio de 2023

BILDUTAKOAK

REUNIDOS

Alde batetik, Amaia Aguirre Muñoa anderea (NAN: XXXXXXXX), Getxoko Udaleko alkate-udalburua izanik.

De una parte, Dña. Amaia Aguirre Muñoa, con D.N.I nº XXXXXXXX, en calidad de Alcaldesa-Presidente del Ayuntamiento de Getxo.

Bestetik, , Carlos Bargas Cuco, (NAN XXXXXXXX) BILBOKO ELIZBARRUTIKO CARITASen izenean eta haren ordezkari (IFK: XXXXXXXX), helbidea Bilboko Ribera,8, duena (48005),

De otra parte, D. Carlos Bargas Cucó, con DNI XXXXXXXX, en nombre y representación de CARITAS DIOCESANA DE BILBAO con CIF XXXXXXXX, y dirección en c/ Ribera, 8 (48005- Bilbao),

ADIERAZI DUTE

MANIFIESTAN

1.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautzen du, eta baita uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, 22.2 artikulua ezartzen duenez, dagokion toki erakundeko aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahalko dira, diru-laguntza arautzen duen hitzarmenean jasotako baldintzetan eta diru-laguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

1.- Que la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la citada Ley establece en el Art. 22.2 que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos de la entidad local respectiva, en los términos recogidos en el Convenio regulador de la subvención y en la normativa reguladora de las subvenciones.

Eta legearen 28. artikulua dioenez, diru-laguntzak zuzenean emateko prozedurari dagokionez, diru-laguntza hori bideratzen duten emakida nahiz hitzarmenen ebazpenak finkatuko ditu aplikagarriak diren baldintza nahiz konpromisoak legean xedatutakoa betez; hala, hitzarmenak izango dira toki korporazioek aurreikusitako diru-laguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak.

Y el artículo 28 de la Ley dice, con respecto al procedimiento de concesión directa de subvenciones, que la resolución de concesión y los convenios a través de los cuales se canalice dicha subvención, establecerán las condiciones y compromisos aplicables de conformidad con lo dispuesto en la Ley, siendo los convenios el instrumento habitual para canalizar las subvenciones previstas nominativamente por las Corporaciones Locales.

Horri buruz, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikulua ezartzen duenez, aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak honako hauek dira: helburua, aurrekontuko zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastu-egoera berariaz zehaztuta dituzten diru-laguntzak. Gainera, diru-laguntza horiek emateko prozedura ofizios hasiko du diru-laguntza egozten zaion Aurrekontuko Kredituaren Zentro Kudeatzaileak edo interesdunak eskatuta; emakida edo hitzarmenaren ebazpenarekin amaituko da, eta kasu horietako edozeinetan ere diru-laguntza arautzeko oinarri-izaera izanik.

Halaber, Getxoko Udalbatzak 2021eko abenduaren 23an onartutako eta 52. zenbakiduna 2022ko martxoaren 16ko BAO on argitaratuta, diru-laguntzen emakida arautzeko udal ordenantzaren 11.3.a) artikulua xedatzen duenez, Getxoko Udaleko sail bakoitzeko urteko aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahalko dira, laguntza horiek arautzen dituzten hitzarmena aurreikusitako baldintzetan.

2.- Gizarte Zerbitzuen 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen helburua honako hau da: Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan gizarte zerbitzuen eta prestazio eta zerbitzuetarako eskubidea sustatzea eta bermatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsala arautuz eta antolatuz.

6. artikulua xedatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) helburua:

- a) Autonomia pertsonala sustatzea eta mendekotasunetik ondorioztatutako behar pertsonal eta familiarak prebenitzea eta haiei erantzutea.
- b) Babesik ezeko egoerek eragindako beharrak prebenitzea eta haiei erantzutea.

c) Esklusio egoerak prebenitzea eta

Al respecto, el artículo 65 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio establece que son subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos aquellos cuyo objeto, dotación presupuestaria y beneficiario aparecen determinados expresamente en el estado de gastos del presupuesto. Asimismo, el procedimiento para la concesión de dichas subvenciones se iniciará de oficio por el Centro Gestor del Crédito Presupuestario al que se imputa la subvención o a instancia del interesado y terminará con la resolución de concesión o el convenio, teniendo en cualquiera de los casos el carácter de base reguladora de la subvención.

Asimismo, la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos aprobada por el Pleno de fecha 23 de diciembre de 2021 y publicada en el BOB nº 52 de 16 de marzo de 2022 dispone en su artículo 11.3. a) que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos anuales de cada uno de los departamentos del Ayuntamiento de Getxo, en los términos que se prevean en los convenios que regulen dichas ayudas.

2.- Que la ley 12/2008, de 5 de diciembre del 2008 de Servicios Sociales tiene por objeto promover y garantizar en el ámbito de la CAPV el derecho a las prestaciones y servicios sociales mediante la regulación y ordenación de un Sistema Vasco de Servicios Sociales de carácter universal.

El **artículo 6** establece la finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales (SVSS):

- a) Promover la autonomía personal y prevenir y atender las necesidades personales y familiares derivadas de dependencia.
- b) Prevenir y atender las necesidades originadas por situaciones de desprotección.

c) Prevenir y atender situaciones de

haiei erantzutea eta pertsonen, familien eta taldeen gizarte integrazioa sustatzea.

- d) Larrialdi egoerek eragindako behar pertsonal eta familiarak prebenitzea eta haiei erantzutea.

V. tituluaren (Ekimen pribatuaren esku-hartzea) II. kapituluko (dirua irabazteko asmorik gabeko gizarte ekimenarentzako babes publikoa) **73. artikuluan** (GZESen Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan jasota ez dauden prestazio eta zerbitzuak garatzeko eta gizarte zerbitzuen arloan beste ekintza batzuk egiteko dirua irabazteko asmorik gabeko gizarte ekimenarekiko babes publikoa), 3. puntuan, xedatzen da diru-laguntza edo hitzarmenen arloan artikulatu ahalko dela, eta hitzarmenak urtetik urterakoak izan ahalko direla.

Halaber, **60. artikulua** ("ekimen pribatuaren parte-hartzea Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoaren zerbitzuen prestazioan" izenburuduna) honako hau xedatzen du:

"Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira".

3.- **ELIZBARRUTIKO CARITASEk** sustrai sendoak ditu Getxo udalerrian, eta eskualdean nahiz Bizkaia osoan ematen ditu zerbitzuak esperientzia eta izen handia duen alor zabalean: hain zuzen arloan, esperientzia handia eta ospea ditu. eta bere lanean, boluntariotzaren

4.- Elkartearen jarduera-esparrua Konpainia Integraleko Eredua da, eta

exclusión y promover la integración social de las personas, de las familias y grupos.

- d) Prevenir y atender las necesidades personales y familiares originadas por las situaciones de emergencia.

En el Título V (Intervención de la iniciativa privada), Capítulo II (Apoyo público a la iniciativa social sin ánimo de lucro), **artículo 73** (Apoyo público a la iniciativa social sin ánimo de lucro para el desarrollo de prestaciones y servicio no incluidos en el Catálogo de Prestaciones y Servicios del SVSS y la realización de otras actividades en el ámbito de los servicios sociales) en el punto 3 se recoge que se podrá articular en el marco de subvenciones o convenios, pudiendo estos últimos ser interanuales.

Así mismo, en su **artículo 60** titulado "la participación de la iniciativa privada en la prestación de servicios del Catálogo de prestaciones y servicios del sistema vasco de servicios sociales", establece que:

"Las administraciones públicas vascas, en aplicación de los principios de coordinación y cooperación, promoción de la iniciativa social y aprovechamiento integral, racional y eficiente de los recursos, procurarán aprovechar, siempre que resulte adecuado, las capacidades y recursos desarrollados por la iniciativa privada social."

3.- Que **CARITAS DIOCESANA** está fuertemente arraigada en el municipio de Getxo, viene prestando sus servicios en la comarca y en toda Bizkaia; con larga experiencia y prestigio en su quehacer en el ámbito más amplio de la atención a las personas con dificultades socioeconómicas y de integración social.

4.- Que el marco de intervención de la asociación es el Modelo de

eredu horretan oinarrituta egin da konpainia-proiektua. Halaber, pertsonak eskubideen subjektuak direla ulertzen da, bai eta kasuan kasuko egoeren arabera lanerako gaitasunak eta eskumenak dituztela ere.

5.- Diru-laguntzaren xedea **ELIZBARRUTIKO CARITAS**en jarduerak finantzatzea da:

- Oinarrizko beharrianak betetzearekin eta egoera familiarretan balorazioa/konpainia, informazioa nahiz orientazioa ematearekin lotutako gaiei erantzutea.
- Gizartean eta eskolan zailtasunak dituzten adingabeei babesa ematea.
- Familien egoerak baloratzea egoitzabaliabideak eskuratzeko.
- Babes ekonomiko eta material desberdinekin lankidetzan aritzea.
- Prestakuntzako tailerrak antolatzea.
- Adinekoei laguntzeko zerbitzua ematea.
- Aholkularitza juridikorako, psikologikorako eta enplegurako orientaziorako zerbitzuak eskaintzea.

6.- Hitzarmen honen helburua erakunde horretako aurrekontuan (indarrean dagoena) diru-laguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da, bai eta erakunde onuradunak bere gain hartutako baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea ere.

Beraz, Diru-laguntzen Lege Orokorrean, Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, eta hura honako hauek aginduko dute

Acompañamiento Integral desde el que está elaborado el proyecto de Acompañamiento y trabaja desde el reconocimiento a las personas como sujetos de derechos y desde el reconocimiento también de las potencialidades y capacidades de las mismas a través del trabajo en procesos en función de la situación que estas presenten.

5.- Que la subvención está destinada a financiar las actividades de **CARITAS DIOCESANA:**

- Atención en cuestiones relacionadas con la cobertura de necesidades básicas, información, orientación, valoración/acompañamiento de situaciones familiares.
- Apoyo a menores con dificultades socio-escolares.
- Valoración de situaciones familiares para entrada a recursos residenciales.
- Colaboración con diferentes apoyos económicos y materiales.
- Organización de talleres formativos.
- Servicio de acompañamiento a personas mayores.
- Acceso a servicios de asesoramiento jurídico, psicológico y de orientación al empleo.

6.-Que la finalidad del presente convenio es canalizar a favor de la entidad beneficiaria, la subvención que figura en el vigente Presupuesto de esta Entidad, así como establecer las condiciones y compromisos que asume la entidad beneficiaria.

Así pues, de conformidad con lo establecido en la Ley General de Subvenciones, en la Ordenanza General de Subvenciones y demás normativa aplicable, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se registrará por las siguientes

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- DIRU-LAGUNTZAREN HELBURUA

Diru-laguntza honen helburua da, 2023. urtean, **ELIZBARRUTIKO CARITASEk** (IFK: XXXXXXXX) gizarte-kalteberatasuneko egoeran dauden Getxoko udalerriko pertsonen, familien eta kolektiboen garapen integralari laguntzen dioten jarduerak finantzatzea.

BIGARRENA.- ERAKUNDE ONURADUNA

Entitate onuraduna **ELIZBARRUTIKO CARITAS** (IFK: XXXXXXXX) da.

ELIZBARRUTIKO CARITASEk adierazten du ez dagoela Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, 13.artikuluari jasotzen diren debekuetan sartuta, erakunde onuradunak izateko.

HIRUGARRENA.- AURREKONTUAREN ZENBATEKOA ETA KREDITUA

ELIZBARRUTIKO CARITASi diru-laguntza izenduna ematea babesten duen aurrekontuaren kreditua 2023rako Getxoko Udaleko aurrekontuko 002 2310 4817400 partidan jasota dago; xede horretarako, **15.750** euro erabiliko dira.

LAUGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Diru-laguntzaren emakida arautzen duen araubide juridikoa honako hau da:

- 1.- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
- 2.- Gizarte Zerbitzuen 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legea.

CLAUSULAS

PRIMERA.- OBJETO DE LA SUBVENCIÓN

La subvención tiene como objeto financiar las actividades que contribuyan al desarrollo integral de las personas, familias y colectivos del municipio de Getxo que se encuentran en situación de vulnerabilidad social, llevadas a cabo por **CARITAS DIOCESANA** con CIF XXXXXXXX, durante el año 2023

SEGUNDA.- ENTIDAD BENEFICIARIA

La entidad beneficiaria es **CARITAS DIOCESANA** con CIF XXXXXXXX.

CARITAS DIOCESANA declara no estar incurso en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de entidad beneficiaria previstas en el Artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones.

TERCERA.- CUANTÍA Y CRÉDITO PRESUPUESTARIO

El crédito presupuestario que ampara la concesión de la subvención nominativa a **CARITAS DIOCESANA** se halla recogido dentro de la partida 002 2310 4817400 el Presupuesto del Ayuntamiento de Getxo para 2023, destinando para tal fin la cantidad de **15.750 euros**.

CUARTA.- REGIMEN JURIDICO

El régimen jurídico que regula la concesión de la subvención es el siguiente:

- 1.- La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- 2.- La Ley 12/2008, de 5 de diciembre del 2008 de Servicios Sociales.

3.- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 legearen araudia onartzen duena.

4.- Urtarrilaren 22ko 4/2013 FORU DEKRETUA, Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia onetsi zuena.

5.- Getxoko Udalbatzak 2021eko abenduaren 23an onartutako Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

6.- Hitzarmena bera.

3- El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003.

4.- DECRETO FORAL 4/2013, de 22 de enero, por el que se aprueba el Reglamento por el que se regulan las Obligaciones de Facturación.

5.- La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos aprobada por el Pleno de fecha 23 de diciembre de 2021

6.- El propio Convenio

BOSGARRENA.- BATERAGARRITASUNA

Diru-laguntza hau xede bera duten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin bateragarria izango da, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak eta nazioarteko erakundeek emandakoak; nolanahi ere, diru-laguntza edo laguntza horiek arautzen dituen araudiak ezarri dezakeena bete ahalko da. Hala ere, emandako diru-laguntzak ezingo du, inolaz ere, guztira diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin lehian.

QUINTA.- COMPATIBILIDAD

La presente subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas. No obstante, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad total subvencionada.

SEIGARRENA.- EGIKARITZEKO EPEA

Diruz lagundutako jarduera egiteko epea 2023ko abenduaren 31n amaituko da.

SEXTA.- PLAZO DE EJECUCION

El plazo para la realización de la actividad subvencionada finaliza el 31 de diciembre del 2023.

ZAZPIGARRENA.- DIRU-LAGUNTZAREN EPEA ETA ORDAINTZEKO ERA

Diru-laguntza emateko erabakia hartuta, diru-laguntza hura dena batera eta justifikatu aurretik ordainduko da, erakunde onuradunak zer elkartze-izaera eta baliabide ekonomiko urriak dituen ikusirik; hala, ez da beharrezkoa izango

SEPTIMA.- PLAZO Y MODO DE PAGO DE LA SUBVENCION

Dictado el acuerdo de concesión de la subvención, el pago total de la subvención se realizará de una sola vez y de forma anticipada a la justificación de la misma, sin que sea precisa la prestación de garantía alguna por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones

inolako bermerik ematea, hitzarmen honen arabera onartutako betebeharrak ez betetzeko arriskurik ez baita ikusten.

ZORTZIGARRENA.- JASOTAKO DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

1.- Hitzarmen honek aipatutako diru-laguntza emateko helburua bete izanaren justifikazioaren aurkezpenak eta jasotako funtsen aplikazioa bete izanaren justifikazioaren aurkezpena **2024ko urtarrilaren 31ean** baino lehenago izango da.

2.- Dirulaguntzaren helburua bermatzeko eta horren justifikazioan laguntzeko, **Justifikazio-kontu sinplifikatua**, behar den moduan beteta aukeztu beharko da. Honetan agertuko dira:

Hitzarmeneko baldintzak betetzen direla **justifikatzen duen jarduketa-memoria**, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, eta gutxienez jarraian adierazitako ebaluazio- eta jarraipen-adierazleak izan beharko dituen:

- Plazaren kostua: guztira emandako dirua / parte-hartzaileen kopurua
- Urtean zehar egindako jarduerakopurua / aurreko urteko jarduerakopurua x 100
- Urtean egondako parte-hartzaile kopurua / aurreko urtean egondako parte-hartzaile kopurua x 100
- Aribideko urtean guztira emandako dirua / aurreko urtean guztira emandako dirua x 100.

Beste diru-sarrera eta diru-laguntzen xehetasuna jarduera beretarako, halakorik egotekotan. Justifikatu gabeko zenbatekoak itzuli izan

asumidas en virtud de este convenio.

OCTAVA.- PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN PERCIBIDA

1.- La presentación de la justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concede la subvención a la que se refiere el presente Convenio y de la aplicación de los fondos percibidos será antes del **31 de enero del 2024**

2.- De cara a garantizar el destino de ayuda y a favorecer su justificación, la subvención se justificará mediante la presentación de la **Cuenta justificativa simplificada** (se incluye como **Anexo II**) debidamente cumplimentada, donde conste:

Una **memoria de actuación justificativa** del cumplimiento de las condiciones del convenio, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos y que deberá contener al menos los siguientes indicadores de evaluación y seguimiento.

- Costo plaza: total de euros concedidos/Nº de personas participantes
- Número de actividades durante el año / Nº de actividades año anterior x 100
- Nº de personas participantes año / Nº personas participantes año anterior x100
- Total euros concedidos el año en curso / total de euros concedidos año anterior x100

Detalle de otros ingresos y subvenciones para las mismas actividades si las hubiera.

Si se hubieran devuelto cantidades no

balira, **itzultzearen ordainketa gutuna.**

3.- Justifikazioak eskaerarekin batera aurkeztu den diruz lagundutako jarduerarako aurrekontu osoa hartuko du barnean.

4.- **Justifikazio-kontu sinplifikatuen zerrendatu diren gastuen egiaztagiriak ez dira justifikazioarekin batera aurkeztuko;** alabaina, originalak gorde beharko dira. Getxoko Udalak egokitzat jotzen dituen egiaztagiriak eskatu ahalko dizkio erakundeari, diru-laguntza egoki aplikatzen ari dela frogatzeko balio badute.

Langileen gastuen justifikazioa aurkeztu beharko da, honako formula hauetako baten bidez:

- Nominak eta horien ordainagiria
- Kotizazioen likidazioaren ordainagiria eta ordainketaren egiaztagiria
- 110 eta 190 ereduak eta ordainagiria.

1.575 €-tik gorako gastuen egiaztagiriak ere aurkeztu beharko dira.

5.- Justifikazioko kontuan zerrendatutako gastuen egiaztagiri gisa onartuko dira merkataritzako trafiko juridikoan baliodunak diren agiriak; horrenbestez, erosketa-tiketak baztertuko dira. Erakundeek Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia onetsi zuen urtarrilaren 22ko 4/2013 FORU DEKRETUAK (2013ko urtarrilaren 29ko BAO) ezarritakoa bete beharko dute, fakturen eta faktura sinplifikatuen edukiari dagokionez (4/2003 Foru Dekretuaren 6. eta 7. artikulua).

BEDERATZIGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastuak honako

justificadas, la **Carta de Pago de dicha devolución.**

3.- La justificación abarcará el **total del presupuesto para la actividad** subvencionada presentado junto con la solicitud.

4.- **Los justificantes de los gastos relacionados en la cuenta justificativa simplificada no deberán aportarse,** junto con la justificación si bien los originales deberán conservarse. El Ayuntamiento de Getxo podrá requerir a la entidad los justificantes que estime oportunos y que permitan obtener evidencia de la adecuada aplicación de la subvención.

Sí se deberá aportar justificación de los gastos de personal mediante alguna de las siguientes fórmulas:

- Nóminas y justificante de pago de las mismas
- Recibo de liquidación de cotizaciones y justificante de pago
- Modelos 110 y 190 y justificante de pago.

También se deberán aportar los justificantes de los gastos con importe superior a 1.575 €

5.- Se admitirán como justificantes de los gastos relacionados en la cuenta justificativa, los documentos válidos en el tráfico jurídico mercantil quedando excluidos por tanto los tickets de compra. Las entidades deberán ajustarse a lo establecido en el DECRETO FORAL 4/2013, de 22 de enero, por el que se aprueba el Reglamento por el que se regulan las obligaciones de facturación (BOB 29 de enero del 2013) en lo que corresponde al contenido de las facturas y facturas simplificadas (Art. 6 y 7 del DF 4/2003).

NOVENA.- GASTOS SUBVENCIONABLES

Se considerarán gastos subvencionables

hauek dira: zalantzarik gabe beharrezkoak direnak diruz lagundutako jarduera behar bezala egiteko, eta hitzarmen honetan araututako diru-laguntzaren xedea betetzen uzten dutenak.

Hitzarmen honen xedearekin zerikusia duten langileen gastuak diruz lagun daitezke, gehieneko % 100era arte.

aquellos que de manera indubitada resulten estrictamente necesarios para la correcta realización de la actividad subvencionada y permitan el cumplimiento del objeto de la subvención regulada en el presente convenio.

Podrá tener carácter de subvencionables los gastos de personal relacionado con el objeto del presente convenio hasta un máximo del 100%.

HAMARGARRENA.- ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

1. Erakunde onuradunaren betebeharrak dira:

a) Diru-laguntzen emakida oinarri duen jarduera egitea. 2022ko abenduaren 31an bukatuko da jarduera egiteko epea

b) Organo emailearen aurrean justifikatzea, hala badagokio, betekizun eta baldintzen betearazpena, bai eta jarduera eginda dagoela eta diru-laguntzaren emakidak edo hura baliatzeak zehaztutako helburuaren betearazpena ere.

c) Organo emaileak edo erakunde laguntzaileak, hala badagokio, egin beharreko egiaztatze-jarduerak burutzea, bai eta beste kontrol-organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza-kontrolako beste edozein ere (estatukoak nahiz komunitatekoak), aurreko jarduerak egikaritzean eskatutako behar besteko informazioa emanez.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak eskuratu izanaren berri ematea organo emaileari.

Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioko

DECIMA.- OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD BENEFICIARIA

1. Son obligaciones de la entidad beneficiaria:

a) Realizar la actividad que fundamenta la concesión de las subvenciones. El plazo para la realización de la actividad finalizará el 31 de diciembre del 2022

b) Justificar ante el órgano concedente, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

d) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas.

Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la

justifikazioaren aurretik.

e) Jasotako funtsen aplikazioaren frogagiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze eta kontroleko jardueren xede diren artean.

aplicación dada a los fondos percibidos.

e) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

HAMAIKAGARRENA.- ERAKUNDEAREN BORONDATEZ ITZULKETA

Erakunde onuradunak jaso duen laguntza osorik edo zati batean itzuli ahalko du borondatez, horixe egiteko eskatu aurretik. Eskaera ebatzi egingo da eta, gero, erakundeari jakinaraziko zaio, ordainketa egiteko modua eta epea adierazita.

Hori guztia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua betez; horren bidez onetsi zen Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren Araudia.

UNDECIMA.-DEVOLUCIÓN VOLUNTARIA A INICIATIVA DE LA ENTIDAD

La entidad beneficiaria, con anterioridad a que se le requiera para ello, podrá solicitar la devolución voluntaria de la totalidad ó parte de la ayuda recibida. Dicha solicitud se resolverá y comunicará a la entidad con indicación de la forma y plazo para el ingreso.

Todo ello en aplicación del Art. 90 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

HAMABIGARRENA.- EZ BETETZEA ETA ITZULKETAK

Erakunde onuradunak diru-laguntza guztiz edo zati batean itzultzera behartuta izango da 38/2003 Lege Orokorraren, Diru-laguntzei buruzkoaren, 37. artikuluan ezarritako kasuetan, itzultzeko prozedura izapidetu aurretik eta lege horren 11. tituluko 11. kapituluan ezarritako prozedurarekin bat etorritik eta garatzen dituzten bere araudiaren aginduetan ezarritako prozedurarekin bat etorritik.

DUODECIMA.- INCUMPLIMIENTO Y REINTEGROS

La entidad beneficiaria estará obligada a reintegrar total o parcialmente la subvención en los supuestos previstos en el artículo 37 de la Ley General de Subvenciones, previa tramitación del procedimiento de reintegro conforme al procedimiento establecido en el Capítulo 11 del Título 11 de esta Ley y en los preceptos de normativa que lo desarrollan.

HAMAHIRUGARRENA.- ARAU- HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Erakunde onuradunak diru-laguntzen arloan egin ditzakeen arau-hauste edo administrazioko zehapenei dagokienez, 38/2003 Lege Orokorraren, Diru-laguntzei buruzkoaren, IV. tituluan xedatutakoa

DECIMOTERCERA.- INFRACCIONES Y SANCIONES

En cuanto a posibles infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones en que pudiera incurrir la entidad beneficiaria, se estará a lo dispuesto en el Título IV de la Ley General

beteko da.

de Subvenciones.

HAMALAU GARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen hau organo eskudunak onartzen duenean eta bi aldeek izenpetzen dutenean sartuko da indarrean, eta diruz lagundutako jarduera 2023an izango da indarrean.

DECIMOCUARTA.- VIGENCIA DEL CONVENIO

El presente Convenio entrará en vigor una vez aprobado por el órgano competente y suscrito por las partes, manteniendo su vigencia durante el año 2023

HAMABOST GARRENA.- DIRU- LAGUNTZAREN PUBLIZITATEA.

Hitzarmen hau eta emakidarako erabakia Diru-laguntzen base nazionalen argitaratuko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatutako Diru-laguntzen Lege Orokorraren 20. artikulua betez.

DECIMOQUINTA.- PUBLICIDAD DE LA SUBVENCIÓN.

El presente convenio así como el acuerdo de concesión se publicarán en la Base nacional de subvenciones en aplicación del Art. 20 de la Ley General de Subvenciones, modificado por la Ley 15/2014, de 16 de septiembre, de racionalización del Sector Público y otras medidas de reforma administrativa.

Izpta./Fdo.: Dña. AMAIA AGUIRRE MUÑOA.

Izpta./Fdo.: D. , CARLOS BARGOS CUCO jnk

**GETXOKO ALKATEA
ALCALDESA DE GETXO**

CARITAS DIOCESANA DE BILBAO